

Zuzenketarako koadernoia

2
0
0
9
/
1
0

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

IRAKURTZEKO GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

Zuzenketa eta erregistro jarraibideak

Liburuxka honetan ezarritako zuzenketa irizpideak eginiko proba pilotuaren arabera zehaztu dira, eta zehatzak eta argiak izan nahi dute, zuzentzaile guztiak puntuazio irizpide berberak erabil ditzaten; hau da, zuzentzailea normahi izanda ere, proba bati ematen zaion puntuazioa berbera izan beharko luke.

Ondoko urratsei jarraituko zaie:

1. Zuzenketa.

Alternatiba bat hautatzea eskatzen duten galderak (A, B, C edo D).



Zuzentzaileak ez du deus berezirik egin behar.

Gainontzeko galderak



Zuzentzaileak, zuzenketa egin eta galdera bakoitzaren ondoan idatziko du dagokion kodea (0, 1, 2...).

2. Kodeak aplikazio informatikoan sartzea. Kodeak (A, B, C, D, 0, 1, 2...) aplikazio informatikoan sartuko dira.

Erantzunik gabeko galderetan ez da koderik sartu behar (utzi zuriz).

Alternatiba bat hautatzea eskatzen den galderetan, ikasleak aukeraren bat baino gehiago adierazi dituzenean (eta ezabatu gabe bat baino gehiago utzi dituzenean) ez da koderik sartu behar.

Ikasleek eginiko probak ikastetxean gordeko dira eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku egonen dira. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egiaztatze azterketak egin ahal izanen ditu, zuzenketa irizpideen baliotasuna egiaztatzeko eta irizpide horiei modu homogeneoan jarraitu zaien ikusteko.

Usoa eta inurria

Erreka ertzean paseatzen zebilen uso zuria. Ura garbi eta garden zihoan; zoruko arraintxo eta harri koxkorak ere garbi-garbi ikusten ziren.

Hala zebilela, usoa, egarritu egin zen eta erreka hurbildu. Moko uretan sartu eta gero burua gora jasoz edaten hasi zen.

Han, erreka ertzean, inurri beltz bat zebilen gelditu ere egin gabe. Egarritu zenean, uraren ertzeko belar batera igo zen.



Belarraren muturra uretaraino iristen zen eta hantxetik behera jaitsi zen inurria.

Ura indarrean zetorren. Inurriak gogor heltzen zion belarrari, baina alferrik; urak eraman zuen handik behera. Igerian egin nahi zuen lehorrera irteteko, baina uraren indarrak ez zion uzten.

Eta pentsatu zuen usoak bere artean: “Gaixoa! Nik lagunduko diot inurritxo horri uretatik irteten. Baina nola? Nire moko handiarekin heltzen badiot min egingo diot. A, badakit. Belar bat gerturatuko diot. Belar hartara igotzen bada, salbaturik dago.”

Honela, joan zen usoa belarraren bila. Azkar hurbildu zen inurriarengana belar bat mokoan zuela. Belarra oso luzea zen eta inurria zegoen lekutik lehorreraino ongi iristen zen. Pozik heldu zion inurriak belarrari. Laster alde egin zuen uretatik lehorrera.

Hankak ongi lehortu ondoren, uso ongileari eskerrak ematera joan zen. Inurria oso pozik zegoen; usoa ere bai, inurritxo bat salbatu baitzuen. Elkar agurtu ondoren, bakoitza bere etxera joan zen: inurria inurritegira eta usoa usategira.

Etxera bidean, inurriak, erreka ertzetik zihoan gizon bat ikusi zuen. Eskopeta bat zeraman bizkarretik zintzilik eta kapelu handi bat buruan. Ehiztari gehienak bezala, bazter guztietara begira zihoan.

Ehiztaria, usoa ikusi zuenean, eskopeta luzatuz, tiro egiteko prestatu zen. Aurrez aurre zeukan usoa. “Ez zegok gaizki! –pentsatu zuen ehiztariak-. Bihar eguerdian arrozari nahasi eta...”

Baina... inurria ez zegoen lo. Usoa arriskuan ikusi zuenean, pentsatu zuen berekiko: “Zerbait egin beharrean nago ehiztariak nire laguna bota ez dezan.”

Korrika, ehiztariari gerturatu zitzaion eta, haren hankako behatz lodira igoz, ahal zuen indar guztiz kosk egin zion.

- Aiiiiiiiiiii! –garrasi egin zuen ehiztariak.

Eskopeta lurrera bota eta hankari heldu zion. Zerbaitek kosk egin ziola konturatu zen; baina alde batera eta bestera begiratu ondoren, ez zuen ezer ikusi.

Inurria hain txikia izanik, erraz ezkutatu zen ehiztariaren bistatik. Ehiztaria prestatu zen berriro eskopeta hartuta usoa botatzeko, baina beranduegi zen. Usorik ez zen inon ageri.

4. Irakurgaiak ELKAR GIE

1. Zer zegoen garbi errekan?

- A. Ura.
- B. Ura eta zoruko arraintxoak.
- C. Ura, zoruko arraintxoak eta harri koxkorak.
- D. Zoruko arraintxo eta harri koxkorak.

2. Zergatik hurbildu zen usoa errekarara?

.....

.....

.....

| Zuzenketarako irizpideak | | |
|--------------------------|------------|-------------------------------------|
| Kodea | Puntuazioa | Erantzuna(k) |
| 0 | 0 | Erantzun okerra edo ez osoa. |
| 1 | 1 | Ura edateko edo egarriak zegoelako. |

3. Zer egin zuen usoak ura edateko?

- A. Ertzeko belar batera igo zen uretaraino iristeko.
- B. Mokoa uretan sartu eta burua beheratu.
- C. Uretan sartu eta burua beheara eramán.
- D. Mokoa uretan sartu eta burua gora jaso.

4. Zergatik igo zen inurria belar batera?

- A. Lo kuluxka egiteko lekurik aproposena iruditu zitzaiolako.
- B. Uretara iristeko modurik hoberena iruditu zitzaiolako.
- C. Arraintxo eta harri koxkorak ikusi nahi zituelako.
- D. Ur garden eta garbian sartu nahi zuelako.

5. Zer dela eta itotzen hasi zen inurria?

- A. Inurriak ez zekien igeri egiten.
- B. Inurria ez zen saiatu igeri egiten.
- C. Uraren indarrak ez zion uzten igeri egiten.
- D. Uretako arraintxoek ez zioten uzten igeri egiten.

6. Nola zegoen inurria usoak ikusi zuenean?

- A. Nazkaturik eta erdi hilik.
- B. Indarrik gabe eta erdi itorik.
- C. Ur gainean eta konortea galdurik.
- D. Oihuka eta negarrez zotinka.

7. Ipuinean, usoak mokoa bi aldiz erabili zuen. Azaldu zertarako.

- 1)
-
- 2)
-

| Zuzenketarako irizpideak | | |
|--------------------------|------------|---|
| Kodea | Puntuazioa | Erantzuna(k) |
| 0 | 0 | Erantzun okerra edo ez osoa. |
| 1 | 1 | Argudio bat aipatzen du: a) Ura edateko. b) Inurriari laguntzeko (hostoa inurriarengana hurbiltzeko, hostoa hartzeko...). |
| 2 | 2 | Bi argudioak aipatzen ditu. |

8. Inurria oso pozik joan zen etxera. Idatz itzazu pozik egoteko bi arrazoi.

.....

.....

.....

| Zuzenketarako irizpideak | | |
|--------------------------|------------|---|
| Kodea | Puntuazioa | Erantzuna(k) |
| 0 | 0 | Erantzun okerra edo ez osoa. |
| 1 | 1 | Argudio bat aipatzen du, ondorengoan artean: a) Uretatik bizirik atera zelako, salbatu zelako. b) Usoari lagundu ziolako. Usoa salbatu zuelako. |
| 2 | 2 | Bi argudioak aipatzen ditu (aipatutakoak). |

9. Osatu ondorengo taula:

| | |
|----------------|--------------------|
| | Etxea |
| Inurria | Inurritegia |
| Usoa | Usategia |
| Oiloa | Oilategia |
| Txerria | Txerritegia |

| Zuzenketarako irizpideak | | |
|--------------------------|------------|--|
| Kodea | Puntuazioa | Erantzuna(k) |
| 0 | 0 | Erantzun okerra edo ez osoa. |
| 1 | 1 | Taula ongi osaturik (usategia, oilategia eta txerritegia). |

10. Ehiztariak zergatik begiratzen zuen alde guztietara?

- A. Animalien beldur zelako.
- B. Ibiltzen ari zen bitartean erori nahi ez zuelako.
- C. Animaliaaren bat harrapatu nahi zuelako.
- D. Etxerako bidea aurkitu nahi zuelako.

11. Zer egin zuen ehiztariak usoa ikusi zuenean?

- A. Eskopeta luzatu eta tiro egin.
- B. Eskopeta luzatu eta tiro egiteko prestatu.
- C. Eskopeta hartu eta usoarengana hurbildu.
- D. Eskopetaz tiro egin.

12. Ehiztariak hau pentsatu zuen: « Ez zegok gaizki! Bihar eguerdian arrozari nahasi eta... » Zer esan nahi du pentsamendu honek?

- A. Hurrengo egunean usoa arrozarekin bazkalduko zuela.
- B. Usoa harrapatu eta arroza emango ziola.
- C. Hurrengo egunean arroza bazkalduko zuela.
- D. Egun horretan usoa arrozarekin afalduko zuela.

13. Zergatik uste duzu inurriak pentsatu zuela zerbait egin behar zuela ehiztariak usoa ez botatzeko?

- A. Inguruan zeuden animalien artean indartsuena zelako.
- B. Usoak berari emandako laguntza eskertu nahi zuelako.
- C. Usoaren laguna izatea lortu nahi zuelako.
- D. Errekako animaliarik ospetsuena izan nahi zuelako.

14. Zer egin zuen inurriak usoari laguntzeko?

- A. Ehiztariarengana hurbildu eta kilimak egin.
- B. Ehiztariarengana hurbildu eta haren hankara igo.
- C. Ehiztariaren hankako belautera igo eta kosk egin.
- D. Ehiztariaren behatz lodira igo eta kosk egin.

15. Zer egin zuen inurriak ehiztariari kosk egin ondoren?


- A. Korrika bizian alde egin zuen.
- B. Txikia zenez erraz ezkutatu zen.
- C. Isil-isilik bertan gelditu zen.
- D. Hil egin zen ehiztariak zapalduta.

16. Zer uste duzu erakutsi nahi digula ipuin honek?

- A. Basoko animalia guztiak lagunak direla.
- B. Indarra garrantzitsuena dela laguntza emateko.
- C. Txikiek ere ahalmena dutela besteei laguntzeko.
- D. Animaliak ehiztariarengandik urrundu behar direla.

Igelaren bizi-zikloa


Plast!! Ara! Oso poliki-poliki ibili arren, ez dut igela ongi ikusterik izan eta berehala ezkutatu zait uretan. Pauso gutxi batzuk gehiago eman eta berriz ere plast!! Baina oraingoan bai! Igel potolo bat ikusi dut salto egiten, eta urpeko harri koskor baten ondoan bere burua gorde du...



Urlehortar edo anfibioak nagusiki uretan bizi dira, baina lehorrera ateratzeko gai dira. Gaur egun 6.000 espezie inguru omen daude. Igelak, apoekin batera, anfibioen taldeko animaliarik ezagunenetarikoak eta adierazgarrienetarikoak dira. Igelak, ordea, beste anfibio batzuk baino hobeki baloratzen ditugu, eta baita eskuetan aiseago hartu ere. Eskuetan hartuz gero ohartuko gara zeinen azal fina eta hezea duten.

Igelek, ugaltzeko, urmael txikiak, errekatxoak edota putzuak nahi izaten dituzte.

KROK! Igel arrak abesten duenean egiten duen soinua da. Arrek korrok egiten dute urmaeleko emeak erakartzeko. Egun asko ematen dituzte kantuan, batez ere gauaz. Emeak laster hurbiltzen zaizkie, parekatzeko.



Urmaelean elkartzen dira; emeak milaka arrautza uzten ditu uretan, eta arrak beraien gainean botatzen du bere hazi likidoa (espermatozoideak). Arrautza bakoitza puntu beltz txiki bat da, eta bola likatsu batek biltzen du, urmaeleko arriskuetatik babesteko.

Ernaltze-sistema honek, arrainena ekartzen du gogora.

... uretatik lurrera

Arrautzetatik, egunetara, zapaburuak irteten dira. Zapaburuek zakatzak edo brankiak dituzte, ur azpian arnasa hartzeko, eta isatsa ere bai, mugitzeko. Urmaelean 3-5 hilabete beharko dituzte metamorfosi izeneko prozesua burutzeko.

Prozesu harrigarri honetan zapaburuaren buztana zurgatu eta hankak garatu egingo dira, atzekoak lehenik eta aurrekoak gero. Brankiak galdu eta birrikak garatzen zaizkie, eta aho barnean mihi luze eta eranskorra luzatzen zaie, harrapakinak errazago ehizatzen. Azkenik, metamorfosi prozesua bukatzean, igel heldua uretatik atera daiteke.

Helduaren itxura lortu ondoren igeltxo berria uretatik atera eta putzuaren inguruko lurraldean bizitzen hasiko da. Gainerako anfibioak bezala, igel helduak haragijaleak dira eta beren aho zabalari esker harrapakin handiak irentsi ditzakete, ohizko harrapakinak (intsektuak, molusku txikiak, armiarmak eta zizareak) hain zuzen ere.

Igelek arazoak ere badituzte.

Gaur egun, uraren, airearen eta luraren kalitatea oso kaskarra da planetako hainbat gunetan; gasak eta likidoak azalean barrena sartzen zaizkienez, animalia hauek dira gaur egun arrisku handien dutenetakoak. Horretaz gainera, gizaki batzuek legez kanpo harrapatzen dituzte, inolako baimenik gabe, jateko.



Denon artean pentsatu behar dugu zer egin dezakegun desagertzeko arriskuan bizi diren hainbat espeziek gure artean iraun dezaten. Hurbileneko anfibioak, gure ingurunean urmael eta errekatxoetakoak, ongi ezagutzea izan liteke lehenengo urratsa.

17. Testuaren hasieran lehenengo paragrafoa letra mota desberdinez dago, beltzago. Zein da lehenengo paragrafo horren asmoa?

.....

.....

.....

| Zuzenketarako irizpideak | |
|---------------------------------|---|
| Puntuazioa | Erantzuna(k) |
| 0 | Erantzun okerra edo ez osoa. Adibidez: zatirik inportanteena delako... |
| 1 | Hauetako bat: - Aurkezpen bat da. - Testuaren sarrera da. - Motibatzeke da. - ... |

18. Zer esan nahi du “urlehortar” hitzak?

- A. Igel mota bat, handia eta dotorea.
- B. Igelak bizitzeko gustuko duten toki bat.
- C. Uretan eta lehorrean bizi daitekeela.
- D. Urlehor izeneko toki batekoa dela.

19. Zer lortu nahi dute arrek abesten dutenean?

- A. Igel emeen laguntza urmaelera iristeko.
- B. Urmaelean dauden arrautzak babestea.
- C. Igel emeak erakartzea parekatzeko.
- D. Inguruko apoak hurbiltzea.

20. Igelak non jartzen ditu arrautzak?

- A. Lehorrean
- B. Urpean
- C. Urpean eta lehorrean jar ditzake
- D. Errekatxoan ondoan

21. Nola babesten dira arrautzak urmaelean dauden arrainengandik?

- A. Puntu beltz txiki batez baliatzen dira.
- B. Igel emearen hanken artean sartzen dira.
- C. Geruza gogor batez estaltzen dira.
- D. Bola likatsu batean biltzen dira.

22. Begiratu igelaren bizi-zikloaren irudia. Zertan laguntzen dizu?

- A. Igelaren metamorfosi prozesua ulertzen.
- B. Igelaren ernaltze prozesua ulertzen.
- C. Testua arinago irakurtzen.
- D. Igelaren bizimodua nolakoa den argitzen.

23. Ordenatu igelaren bizi-zikloaren pausoak 1, 2, 3 eta 4 zenbakiak ipiniz.

- 3** Atzeko hankak lehenik eta ondoren aurrekoak hazten zaizkie..
- 1** Arra eta emea parekatu egiten dira.
- 2** Arrautzetatik zapaburuak irteten dira.
- 4** Lehorrean ibiltzeko gai den igel bihurtzen dira.

| Zuzenketarako irizpideak | |
|--------------------------|------------------------------------|
| Puntuazioa | Erantzuna(k) |
| 0 | Erantzun okerra edo ez osoa. |
| 1 | Erantzun guztiak ongi (3, 1, 2, 4) |

24. Zer esan nahi du “metamorfosi” hitzak?

- A. Uretan eta lehorrean ibiltzea.
- B. Emeak errun dituen arrautzetatik jaiotzea.
- C. Animalia batzuek jasaten dituzten aldaketak.
- D. Animaliak metatzea.

25. Zapaburuek brankiak dituzte...

- A. Uretan igeri egiteko
- B. Arriskuetatik babesteko
- C. Arnasa hartzeko
- D. Harrapakinak ehizatzeke

26. Zer erabiltzen dute igelek arnasa hartzeko?

- A. Brankiak
- B. Azala eta brankiak
- C. Birikak
- D. Metamorfosia

27. Esan esaldi hauek egia (E) edo gezurra (G) diren.

E Igelen bizi-zikloan, ernalketa uretan egiten da.

G Igelak narrastien taldekoak dira.

E Arrautza bakoitza geruza itsaskor eta babesle batean bilduta egoten da.

E Igelek harrapakinak ehizatzeke mihi likatsua erabiltzen dute.

| Zuzenketarako irizpideak | |
|--------------------------|-------------------------------|
| Puntuazioa | Erantzuna(k) |
| 0 | 0, 1 edo 2 erantzun zuzen. |
| 1 | 3 erantzun zuzen. |
| 2 | 4 erantzunak zuzen (E-G-E-E). |

28. Zer egin dezakegu gizakiok, igelak desagertzeko arriskutik babesteko? Bi neurri aipatu.

- 1)
-
- 2)
-

| Zuzenketarako irizpideak | |
|--------------------------|--|
| Puntuazioa | Erantzuna(k) |
| 0 | Erantzun okerra edo ez osoa. Ingurunea babesteko neurri zehatzik ez du aipatzen. |
| 1 | Neurri bat aipatzen du: a) Kutsadura gutxitu (edo airearen, uraren eta lurraren kalitatea hobetu). Edozein adibide ontzat emango da: ingurunea garbi mantendu, energia aurreztu, ura aurreztu, urak garbitu, ibaiak garbi mantendu, ingurunera zaborrik ez bota, zaborrak bota sailkatu ondoren, eta abar. b) Igelak ez ehizatu. c) Oreka ekologikoa mantendu. d) ... |
| 2 | Bi neurri aipatzen ditu, mota ezberdinekoak. |